Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Gizarte Ongizateko Zuzendaritza
Dirección de Bienestar Social

Urdaneta, 13 - Tel. 943481400 - Faxa 943481414 - www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

# GIZARTE EKINTZAKO AHOLKU BATZORDEA
# CONSEJO ASESOR DE ACCION SOCIAL

## BILERA-AGIRIA / ACTA borrador

**EGUNA / DIA:** 2016ko apirilaren 15a
**ORDUA / HORA:** 10:30
**LEKUA / LUGAR:** Ernest Lluch kultur etxeko areto nagusia

## BERTARATUTAKOAK / PRESENTES

- AFAGI
- AGIFES
- ARRATS
- ARANGI
- FAMILIA ZAINKETAREN ALDEKO ELKARTEA
- GIPUZKOAKO PERTSONA GORREN FAMILIEN ELKARTEA
- ASPACE GIPUZKOA
- ATECE GIPUZKOA
- ATZEGI-
- AVAIM
- BEGIRIS ELKARTEA
- BIDEGIN
- BIZI BIDE
- DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO CARITAS
- GIZARTE LANGILEEN ELKARGO OFIZIALA
- GURUTZE GORRIA
- ELKARTU
- EMAUS GIZARTE FUNDAZIOA
- GAZTEDI ELKARTEA
- GENE
- GIELMAR
- GUREAK INKLUSIO FUNDAZIOA
- HAURRALDE FUNDAZIOA
- HELDUEN HITZA
- HEZKUNTZA
- IRESGI
- NAGUSILAN
- OSAKIDETZA DONOSTIALDEA
- UME ALAIA GIPUZKOA
- UNIVERSIDAD DE DEUSTO
- EAJ/PNV
- EH BILDU
- IRABAZI DONOSTIA
- PSE-EE
- PERTSONA FISIKOA

**LEHENDAKARITZA-** Aitziber San Roman
**GIZARTE ONGIZATEKO ZUZENDARITZA-** Tere Barrenetxea, Elvira Cid
**IDAZKARIA-** Mikel Esnal

Gizarte Ongizateko Zuzendaritza
Dirección de Bienestar Social

Urdaneta, 13 - Tel. 943481400 - Faxa 943481414 - www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

# ESAN-EGINAK / DESARROLLO DE LA REUNIÓN

**1. AURREKO BILERAREN AKTA IRAKURTZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA**

Akta inolako gogoetarik egin gabe onartu dute.

Gai zerrendako aztergaiak aldatu dituzte, eta hirugarrena bigarren tokira aldatu dute.

**1. LECTURA Y APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA REUNIÓN ANTERIOR.**

El acta se aprueba sin ninguna consideración.

Se modifica los puntos del orden del día y pasa el tercero a ser el segundo

**2. Zaintzaileei zuzendutako Zaintzak plataforma aurkeztea.**

Berdintasuneko Ana Txurrukak eta Kontxi Lopezek aurkeztu dute plataforma.

Adierazi dute Donostiako Udalak webgune bat jarri duela abian zaintzaileentzat (% 99 emakumeak direla kalkulatzen da), haientzat baliagarri izan daitekeen informazioa zentralizatzeko. Horretarako, halako lanetan dabiltzan elkarte eta taldeen laguntza izan dute.

Jakinarazi dute haiekin harremanetan jartzeko helbide elektronikoa zaintzakcuidados.net dela, eta informazioa nahi izanez gero edo parte hartu nahi izanez gero hartara jo dezaketela.

Eskatu dute keinu hizkuntzan egindako bideo bat sartzeko webgunean.

**2. Presentación de la plataforma Zaintzak dirigida a personas cuidadoras.**

Hacen la presentación de esta plataforma, Ana Txurruka de Igualdad y Kontxi Lopez.

Indican que el Ayuntamiento de Donostia, ha puesto en marcha una pagina Web dirigida a personas cuidadoras (se estima que un 99% son mujeres) para centralizar información que pueda ser útil para este colectivo. Para ello han contado con la colaboración de algunas asociaciones y colectivos que trabajan en esta actividad

Facilitan el correo electrónico "zaintzakcuidados.net" para ponerse en contacto con ellos, bien para cualquier información o participación.

Se les solicita que en la pagina Web, se incluya un video en lenguaje de signos.

**3. Batzorde Iraunkorrean landutako gaiak, Gizarte Ekintzako Kontseiluaren osoko bilkurara eraman beharrekoak:**

**•Diru sarrerak bermatzeko laguntzen gaiaren trataera.**

Batzordeburuak hitza eman dio Bilduren ordezkariari, informazioa zergatik eskatu duten eta zer irismen izango duen azal dezan.

Adierazi du interesgarria iruditzen zaiela arlo horretan lan egiten duten elkarteen iritzia jakitea, laguntza hori kentzeak pertsonengan edo familiengan nola eragingo duen azaltzea.

Aitziberrek proposatu du gai horri buruz ohiz kanpoko bilera monografiko bat egitea maiatzaren 3an.

**3. Puntos tratados en la Comisión Permanente a trasladar al pleno del Consejo de Acción Social:**

**•Tratamiento de la cuestión de las Ayudas de Garantía de Ingresos.**

La presidenta cede la palabra a la representante de Bildu, para que explique los razones y el alcance de la solicitud de información.

Informa que les parece de interés conocer la opinión de las asociaciones que trabajan en este campo, para que indiquen la repercusión que puedan tener en las personas o familias la desaparición de esta ayuda.

Aitziber, propone realizar una reunión extraordinaria y monográfica respecto a este tema el día 3 de mayo

Gizarte Ongizateko Zuzendaritza
Dirección de Bienestar Social

Urdaneta, 13 - Tel. 943481400 - Faxa 943481414 - www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Bestalde, proposatu du Foru Aldundiko pertsona bat gonbidatzea, erabaki horren zergatia azal dezan.

Proposamena onartu dute.

**•Udal Gizarteratzeko Planari buruzko proposamena.**

Aitziberrek adierazi du lan taldeak amaitu duela diagnostiko kuantitatiboa. Ondoren, fase kualitatiboari ekingo diote.

Erabaki dute ohiz kanpoko bilera bat egitea irailean edo urrian, baina proiektua lehenago bidaliko dute, behar besteko aurrerapenarekin.

Eskatu dute kontseiluko elkarteen iritziak jasotzea eta kontuan hartzea proiektua amaitu aurretik.

**•Donostia Lagunkoiari buruzko proposamena.**

Nagusilanen ordezkari Jesus Mari Zalduak azaldu du Donostia Lagunkoiaren helburua zela hirian garatuko diren estrategiak eta ekintzak jasotzea proiektu batean, elkarte edo taldeen proposamenak aintzat hartuta, hiri eredu berritzaileago bat izateko gizarte alderdiei dagokienez.

Gaur egun ez dakite nola dagoen proiektua eta adierazi du parte hartzen jarraitu nahiko luketela.

Alfonso Gurpegik jakinarazi die egin dituztela bilerak zuzendari eta zinegotziekin baina ez dakiela eragileei horren berri eman ote dieten.

Hainbat ekarpen eta babes mezu izan dira parte hartzeko eskabidearen inguruan, eta erabaki hauek hartu dituzte:

-Gutun bat bidaltzea Udaleko Gobernu Batzarrari, proposamen hori lantzen jarrai dezaten eskatzeko.

-Donostia Lagunkoiaren ordezkari bati eskatzea azalpenak ematera etor dadila.

Baimena eman diote Batzorde Iraunkorrari alderdi horiek kudeatzeko. Ondoren Kontseilua jakinaren gainean jarri beharko du.

Por otro lado propone, invitar a una persona de Diputación para que explique la decisión

Se acepta lo propuesta.

**•Propuesta referida al Plan de Inclusión Municipal.**

Aitziber, indica que el grupo de trabajo ya ha finalizado el diagnostico cuantitativo. Posteriormente se realizará la fase cualitativa.

Se queda en realizar una reunión extraordinaria en septiembre o octubre, pero antes y con tiempo suficiente se enviará el proyecto.

Solicitan que se recojan y se tomen en cuenta las opiniones de las asociaciones de este consejo antes de finalizar el proyecto.

**•Propuesta referida a Donostia Lagunkoia.**

Jesus Mari Zaldua, representante de Nagusilan, explica que el objetivo de Donostia Lagunkoia era hacer un proyecto con estrategias y acciones a desarrollar en la ciudad, recogiendo las propuestas de algunas asociaciones o colectivos, para hacer un modelo de ciudad con aspectos sociales mas innovadores.

En la actualidad desconocen cuál es el estado del proyecto y que les gustaría seguir participando.

Alfonso Gurpegi, informa que se han tenido reuniones con directores y concejales pero que desconoce si se ha transmitido a los diversos agentes

Después de diferentes aportaciones y apoyos a la solicitud de participación, se adoptan los acuerdos siguientes:

-Enviar una carta al a Junta de Gobierno municipal pidiendo seguir trabajando en esta propuesta .

-Petición de que algún representante de Donostia Lagunkoia acuda a dar una explicación.

Se da autorización a la Comisión Permanente para gestionar estos cuestiones informando posteriormente al Consejo .

Gizarte Ongizateko Zuzendaritza
Dirección de Bienestar Social

Urdaneta, 13 - Tel. 943481400 - Faxa 943481414 - www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

**4. Gizarte Ongizateko 2015eko jardueraren aurkezpena eta balorazioa / 5. Gizarte Ongizatearen Zuzendaritzaren 2016ko aurrekontuak aurkeztea eta balioestea.**

Proposatu dute aldi berean aurkeztea Gizarte Ongizatearen Zuzendaritzaren 2015eko jarduera, ekitaldi horretan gauzatutako aurrekontua eta 2016ko aurrekontua.

Gizarte Ongizateko zuzendariak hori guztia aurkeztu du eta azalpenak ematen ari zen bitartean egin dizkioten kontu guztiak erantzun eta argitu ditu.

Lehendakariak parte hartzaileei eskerrak eman ondoren, bilera 12:15ean amaitu da.

**4. Presentación y valoración de la actividad 2015 de la Dirección de Bienestar Social / 5. Presentación y valoración de los presupuestos 2016 de la Dirección de Bienestar Social.**

Se propone realizar una presentación simultánea de la actividad de la Dirección de Bienestar Social en 2015, el presupuesto ejecutado en dicho ejercicio y el presupuesto de 2016.

La directora de Bienestar Social, realiza la presentación de todas estas cuestiones respondiendo y aclarando diversas cuestiones que van surgiendo durante la exposición.

Con el agradecimiento de la Presidenta por la participación y colaboración de las personas presentes, finaliza la reunión a las 12H 15'.